



Haur eta Gazte Literatura | ITZULPENEA

Hartza ehizatzena goaz
Michael Rosen

(Berridazketa) Irudiak: Helen Oxenbury.
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni.
Pamiela-Kalandraka, 2013

Hartzaren atzetik eta aurretik

LIBURU honen azalak berak irakurlearen arreta erakartzen du: *Hartza ehizatzena goaz*; alegia, hartz bat harrapatu behar dugu! Eta azal biak (aurreko eta atzeko azalak) hartzen dituen irudian, aita seme-alabekin eta txakurrarekin ageri da, pozik, jolasean, zelai batean saltoka. Hartza ehizatzena goaz eta ez gara beldur, jolastera goaz, ikusiko dugu, hartz bat harrapatuko dugu!

Michael Rosenek haur abesti ezaguna moldatu eta liburu hau idatzi zuen, eta Helen Oxenburyk, kontakizunaren tonua eta estiloarekin bat eginez, ilustrazioak egin zituen. Hauetan, irudietan, kolorezkoak eta zuri-beltzekoak tartekatzen direla ikusiko dugu; eta koloreen aukeraketa ere liburuaren erritmoarekin erlacionaturik dugu: eragozpen, zailtasun, traba bat agertzen denean mugimendu eza edo geldoa ikusiko dugu, irudia zuri-beltzean... zailtasun horren irtenbidea berri, hurrengo orrian ageriko zaigu koloretan, familiako kideak aurrera egiten, hartz harrapatze bidean. Jolas horrek, eragozpenak gaingitzea, hartzaren kobazulora iritsi arte irauten du, iritsi artekoa dugu; han “ZER DA HORI?” galderaren ondotik egoera guztiz bestelakoa bilakatzen delako. “Sudur heze distiratsu bat! Belarri handi iletsu bat! Begi handi harritu bi! HARTZA DA HORI!!!”, eta ordura arte jolasa zena ihesaldi lasterra bihurtzen da eta bat-batean sei eszena ageriko zaizkigu kobazulotik irten, elur-ekaitzean korrika, basoan barrena... eta hurrengo orrietan lau eszena, etxean sartzen, etxe barruan ezkutatzen; azken bi orriak hartzen dituen

irudi bakarrarekin amaitzeko. Hots, irudien bidez gertakarien erritmo bizi eta egoeraren larritasuna islatu nahi eta ederki lortu delarik.

Albumean zehar egitura errepikakorra ageri zai-gula aipatu dugu irudien estiloaz hitz egitean, eta horixe da hain zuzen irakurlea harrapatzeko modu sinple eta lortua. Familia irribarretsua paseora atera da txakurrarekin, “Hartza ehizatzena goaz. Hartz bat harrapatzeko irrikaz. Hau egun ederra! Ez goaz ikaraz.”, eta ibilaldi horretan belar altuarekin, ibai hotz sakonarekin, lokatz trinko hezearekin eta abarrek egingo dute topo; baina eragozpen bakoitzari irtenbidea bilatu eta aurrera egingo dute ziztizazta belardian, plisti-plasta uretan, zirrun-zarrun lokatzetan... eta tipi-tapa kobazulo barruan. Baina hartzarekin topo egitean atzekoz aurrera egin beharko dute tipi-tapatik zisti-zastara, kobazulotik belardira, eta belarditik etxera.

Etxean, baina “O, ez! Atea ixtea ahaztu zaigu” esatean agertzen zaigu albumeko unerik larrienetarikoa, hartz etxerantz datorrela, atea zabalik eta eskaileretatik behera atea azken unean ixten dutelarik.

Hartza ehizatzena goaz gozatzeko liburua da, une lasaien ondoren, familiarekin zelai, ibai, baso eta mendietan zehar ibili eta gero, kobazuloko larritasunaz ikaratzeko eta amaiera xelebrearen kausaz irribarrea gureganatzeko. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com